

Bidearen amaietan



hortzmuga teatroa

Bi hamarkada. 20 urte baino gehiago. Zehazki, 8030 egun igaro dira gau hartatik, minutu eta segundo luze guztiak barne. Ahoskatua izan behar ez zukeen esaldi bakarra. Ekintza izatera iritsi behar ez zen gertaera bat. Ondorioz eta harrezkeroztik, bi lagunak bizitza eten egin zen. Zintzilik geratu zen haien arteko harremana, airean; hegalki gabeko txoria bailitzan. Gabezi handi hura amildegi bilakatuta, akaso betiko, bata eta bestearen bizitzan.

Pedro eta Pedrin. Txanpon beraren bi aurpegi. Aita-semeak. Alde berean ez egotera kondenatuak. Baina, denak du irtenbidea, zentzugabea eta ustekabekoa bada ere. Izan ere, han, bidearen amaieran, bada bideak elkartu eta judizioa eta barkamena adiskidetzen diren toki bat. Eta leku hartan, bide berri bat irekitzen da.





Bidearen amaieran lanak, aita bat eta bere semea ditu protagonista; urteetan elkar ikusi gabe egon diren bi gizaseme. Alzheimerrak aitaren bizitza menderatzen duen bitartean, Drag Queen baten ibilbide profesionalak semearena definitzen du. Ordurarte, distantziak, gorrotoak eta gaitzespenak markatu dute haien arteko harremana. Baina, ahaidetasunaz ulertzen ez duen pautuak bata eta bestea aurrez-aurre topatzera eramango ditu; jada ez dago atzera egiterik. Biek beldurrez edo zorionez amestu izan dutena gertatzear dago.

Bidearen amaieran, kalerako endreduzko komedia bat da, hau da, vodevil emozional bat. Ez dugu soilik protagonisten arteko akats eta bizipen komikoz jositako komedia arin baten aldeko apustua egin. Ikus-entzulegoaren barrea eragiteaz gain, ikuskizun honetan emozioetan sakondu eta gogoeta egitea proposatzen dugu.

Ari nagusiari, hau da, 20 urtetik gora elkar ikusi gabeko aita-semeen arteko topaketa honi bigarren mailako beste hainbat trama gehitzen zaizkio; modu argian, umoretsuan eta ziztu bizian igaro eta ustekabeko amaiera batean bukatzen direnak, hain zuzen.

Alzheimerra deritzon eta gure adineko askok pairatzen duten gaixotasuna ikusarazten dugu, betiere errespetu handiz. Gertaera guzti hauek medio, hona hemen hainbat burutazio: *nola gertatu liteke elkarren arteko hurreratzeko bat, bi pertsonen elkar barkatzea, bata bestea gogoratzeko ez badu? Zer sentimendu kontraesankor sor daitezke topaketa honetatik?* Hau izango baita auziaren iltzea edo ikuskizunaren inflexio-puntuetako bat. Izan ere, alzheimerak oroimena ezaba dezake, ez ordea sentimenduak, emozioak? Ikus-entzuleekin batera ikusiko dugu.

Horretaz gain, Drag Queen mundua “desgetizatu”, sozializatu eta normalizatu nahi dugu. Gau-mundura baztertutako eta estereotipoz jositako adierazpen artistiko honen bestelako ikuspegi bat eskaintzea dugu helburu. Era honetan, jokabide eta konbentzionalismo sozialari, politikari eta genero-rolei buruzko emanaldi komiko, parodiko eta sarkatisko baten gisa aurkezten dugu.

Helburu hau buruan eta kaleko antzerkiaren formak errespetatuz, proiektu honi Drag Queen-en ikusgarritasuna eta naturaltasuna gehitu diogu geure berezko konpromiso emozional eta eszenikoa borobiltzeko asmoz.

Bidearen amaieran lanak proposatzen duen espazio eszenikoa muntatzeko, garraiatzeko eta eszenaz-eszena eraldatzeko erraza den gailu batek osatzen du. Ikuskitunean zehar pertsonaiak garatu eta aldatzen doazen bezala, eszenografia ere istorioarekin batera eraldatzen da. Hasieran, pertsonaietako batek bidaiatzeko erabiltzen duen erremolke bat dirudiena karabana bilakatu-ko da; eta, azkenerako, karabana ez ezik, aita-semeen arteko topagune eta bidaia berri baten hasieraren agertoki bihurtuko da.

Bidearen amaieran lanean, edozein adinetako publikoa-
rentzat oso ezagunak diren abesti arrakastatsuak era-
biltzen ditugu, hala nola, Eurovisionen ezagun egin di-
renak. Kasu honetan, ezaugarri honek garrantzi handia
du, izan ere, Pedro eta Pedrin gure protagonistek aman-
komunean duten ezaugarri bakarra baita. Garai batean,
elkarrekin ikusi eta gozatzen zuten telebista-lehiaketa
hau, biak ere jarraitzaile sutsuak baitziren. Hortaz, mu-
sika aitaren eta semearen arteko lotura emozionala da,
ez distantziak ez eta gaixotasunak ere desegin ezingo
dutena, hain zuzen.



Ezaugarri nagusiak

- Formatua: kaleko antzerki-ikuskizuna; estatikoa eta Covid-19 segurtasun- eta babes-neurriak bermatuz.
- Iraupena: 60 minutu.
- Hizkuntza: euskara eta gaztelania.
- Publikoa: adin guztientzat.

Fitxa artistikoa

Antzezleak:

Alex Antúnez, Gabriel Ocina.

Idea:

Alex Antúnez

Dramagintza:

Ángel Mirou

Euskaratzailea eta euskarazko bertsioa:

Nerea Lorente

Eszena zuzendritza:

Izpiñe Soto.

Zuzendari-laguntzailea:

Raúl Cancelo.

Koreografia:

Bego Crego

eszenografia diseinua eta eraikuntza:

Oscar de Paz, Iñaki Aguinaga.

Jantziak:

Iban López.

Ile-apainketa eta makillajea:

Alicia Suárez.

Karakterizazio-elementuen eta makillajearen efektu bereziak:

Gorka Aguirre.

Soinu-munduaren sorkuntza eta zuzendaritza:

Ibon Aguirre

Diseinu grafikoa:

Vudumedia

Banaketa:

Hortzmuga Teatroa, Alex Antúnez

Tel. 944 154 307 / 696 444 399

info@hortzmuga.com

Ekoizpena:

Raúl Cancelo, Arantza Goikoetxea

hortzmuga teatroa

